



2025eko ESAEREN AZALPENAK (2025-IV-05)

1. ABADERIK EZ DA JAUSTEN GAZTAINA GANETIK

Abade: apaiz / *Jausi*: erori / *Gaztaina*: gaztainondo (*Castanea sativa**)

Ez da gure asmoa inor diskriminatzea jatorria, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo ogibidea direla-eta, baina onartu behar da apaizgoan dihardutenek sekula ez dutela oso entzute ona izan; aitzitik, alfer- eta eroso-famak lagundu die beti... Beraz, ez dugu uste oso kontu arrunta izan denik abadeak gaztainondoetara igotzea, beti izaten zutelako norik jaso gaztainak haientzat. Eta, jakina, praktika arriskutsuetarako joerarik ez baduzu, arriskurik ez duzu sentituko...

Horrez gain, hitz egin genezake gaztainen garrantziaz antzinako euskaldunen dietan, baina zertarako nekatu gu eta nekarazi zuek?

* Edonola ere —izan gaitezen zintzoak—, ez badakizue zer den "gaztainondo", latinezko izenak ere ez dizue asko lagunduko...

2. ABENDO BEROAK EZ DU LABORARIEN MOLTSARIK BEROTZEN

Abendo: abendu / *Laborari*: nekazari / *Moltsa*: poltsa, diru-zorro

Dena bere garaian etorri behar da... Abenduak hotza ekartzen du berekin, eta gure inguruko natura horretarako prestatuta dago, ez besterako. Beraz, abenduan bero egiten badu, den-dena aldrebesten da eta baserritarra ezin pozik egon... Imajinatu, adibidez, Kanarietan 10 °C dutela Aste Santuan... Orduan, hango hotelen jabeak ez lirateke poztuko, ezta? Bada, horixe: dena bere garaian etorri behar da, ez lehenago ezta geroago ere, gure EZT bezala (martxoaren hasieran, edo erdialdean, edo amaieran, edo apirilean, edo maiatzean...).

3. ABERATSAK ERE HIL-MIHISE BAKARRA ASKI

Hil-mihise: mortaja, vestidura de los muertos; suaire, linceul

Ezer gabe jaiotzen gara, eta ezin dugu ezer eramán mundu hau uzten dugunean... Beste modu batean, espiritua dugu ondare bakar mundura jaiotzean (gehienok, ez naiz ausartzen orokortzen), eta hori besterik ez da gurekin joango hemendik irtetea, ez dirurik, ez ezer. Egia da zenbait kulturatan ohitura dela hilotzak beztitzea, zerbait arinekin (normalean, zerbait merkea); judutarrek, adibidez, hil-mihisea erabiltzen zuten sistematikoki (hori omen da Turingo maindire santua: hiltzean, Kristoren gorpua bildu zuen izara). Bada, esan bezala, hil-mihise bakarra behar izaten du edozein hildakok, gehiagorik ez (beste guztia, nola ez, ondorengoek jasoko dute herentzian, baina hori beste istorio bat da...).

4. ABOGADUEK EZBAIERI INDERRA

Ezbai: eztabaida / *Inder:* indar

Ez daukat ezer abokatuen aurka, baina... (lagun kazetari batek behin esan zidan moduan, "baina" baten aurretik esaten den guztiak ez du ezertarako balio), ... baina onartu behar dugu epaiketarik gabe legegizonen eta legemakumeen* arraza urte gutxiren buruan desagertuko litzatekeela, janik-ezagatik. Izan ere, nondik bizi dira Zuzenbidean lizentziatuak, beste guztion borroketatik ez bada? Beraz, edozein abokatu saiatuko da desadostasunak epaitegietara eramaten, gero bere faktura aurkeztu ahal izateko. Ez aspaldi, kasu hau entzun genuen: pertsona batek (hemendik aurrera, E(roslea)) bigarren eskuko auto baten iragarkia ikusi zuen, eta prezioa galdetu zuen: 1000 €; orduan, saltzaileak (S) esan zion diru-premian zebilela, eta mesedez transferentzia bat berehala egiteko eskatu. Ek hala egin zuen, baina egun batzuetara salerosketaz damutu eta Sri eskatu zion dirua itzultzeko. Ez dakigu zergatik, Sk uko egin zion eskaera horri... Orduan, E laguntza bila joan zitzaion aspaldiko ezagun bati, Ari (abokatu bera, bai). Handik aste pare batera, Ak zera esan zion Eri: "Ikertu dut zure kasua, serio ikertu ere; zuk egin zenuenez atzera operazioan, ezin izango duzu dirua berreskuratu; a, ia ahaztu zait: nire lan eskergaren truk, 700 € zor didazu...".

* Onartuko ahal zaigu neologismo parekide hau!

5. ADIKATZEN DA EMAILEA, ETA EZ HARTZAILEA

Adikatu: nekatu / *emailea:* ematen duena / *hartzailea:* hartzen duena

Harremanak, ondo funtzionatzeko, orekatuak izan behar dira (mota guztietako harremani buruz ari gara, bakoitzak interpreta dezala bere errealitatetik); bestela, nekea sortzen da. Talde (edo bikote) batean, batek dena ematen badu (denbora, dirua, maitasuna, dedikazioa...) eta beste batek/batzuek jaso baino ez badu(te) egiten, logikoa da lehena nazkatzea. Gaztelaniaz erraz diote: "Toma y daca" (bide batez, galdera kulturala: inork al daki zer den "daca" hori? Guk ez dugu jakin orain arte, eta RAEren hiztegian begiratu dugu; horren arabera, "daca" interjekzio bat da: "Da" edo "dame" + "acá").

6. ADINONA LARRA BAINO HOBE DA

Adinon: ez ona eta ez txarra; ez ongi eta ez gaizki; ez gehiegi eta ez gutxiegi; neurrian / *Lar:* gehiegi, larregi

Kontu guztietan, hobe da nahiko edukitzea, ezen ez gehiegi. Guztietan ez? Hori zure iritzia da, lagun: nork bere beharrak ditu, jakina...

7. ADISKIDE, AIZU: GAIZKI ESANA ERE ONGI HAR ZAZU

Adiskide: lagun / *Zazu:* ezazu

Benetako adiskidea bazara, hanka-sartzeak barkatu behar dizkiezu lagunei; azken batean, denok nahasten gara inoiz, denok esaten dugu aldrebeskeriaren bat tarteka, denok haserretzen gara (arrazoiarekin edo gabe) inoiz... Eta lagun, benetako lagun papera da hori guztia ulertzea eta, ahal dela, onartzea. Bai, ezta?

Eta ulertu ez baduzue zuen euskara-maila eskasa (penagarria) delako, edo zuen adimen-gaitasuna ez delako nahikoa azalpen (xume baina mamitsu) hauek ulertu ahal izateko, bada zoazte pikutara edo urrunago, eta ez molestatu gehiago langileok, honen gutxi garelarik —parasitoo aldean— gure Euskal Herri dohakabe honetan... baina, hori bai, gogoan izan ezazue azalpenaren lehen esaldia: hortxe datza egia osoa; ez da hala, adiskide maiteok?

8. AGINDU BAJAKON, EZ ZAUEN EGINGO

Bajakon: bazitzaion / *zauen*: zuen, zukeen

Pertsona batzuk oso burugogorak dira, eta ez zaie gustatzen inork ezer agintzea haiei; horregatik, edozer eskatuta ere, ezetz esango dute beti.

Halere, gerta daiteke euren kabuz egitea gauzak (batzuetan, eskatu zaizkien eta haiek ukatu dituzten gauza horiek berberak), nahi dutelako edo sudur*-puntan jartzen zaielako. Adibide bat jartzearen, azalpen hauek aipa daitezke: txapelketako inork (izan antolaketako kide, parte-hartzaile, epaile edo ikusle), eskatu balu (edo iradoki) azalpen-zerrenda bat prestatzeko urtero-urtero, erantzuna honelako zerbait izango zatekeen: "Erotuta hago??? Hik badakik/n zelako lana den ehun, EHUN!, esaera zaharren azalpenak idaztea??? Hoa pikutara, tonto/tuntun halakoa, eta eman bakea behingoz! Bururatzea ere halako astakeria bat!". Baina ideia gurea izan zenez, inork eskatzeke, hemen dituzue azalpenok... *Enfin...*

* irakurleak aukera beza giza anatomiaren bere atalik gustukoena

9. AHALAZ, EDALEARI ERROZU SEGRETU GUTI

Ahalaz: ahal dela, ahal den neurrian / *Errozu*: esaiozu / *Segretu*: sekretu / *Guti*: gutxi

Ahal dela, ahal bada, ahal den neurrian (alegia, zure behar komunikatiboen arabera), ez kontatu sekretu askorik edaten duen jendeari. Izan ere, jendeak normalean ez du jakiten sekretuak gordetzen, eta are gutxiago edaten duenean. Adibide gisa, S.O. aipatuko dut. 2024ko txapelketa amaitu zenean, goizaldeko ordu txikietan, S.Ok bere egoera sentimental gorabeheratsua azaldu zigun han geratzen ginen apurroi: bikotekidea zuela, baina beste hiruzpalaurekin zebilela aldi berean... Guk, jakina, biblia baten gainean egin genion zin [tartekia: sinesgaitza da Sopolako taberna-zulo batean bibliaren ale bat topatzea? Narrazioak ere apaindu behar dira nolabait, ezta?], tira, zin egin genion sekula ez genuela ezer kontatuko haren bizitza sexual ustel bekatariatz...

10. AHARRAUSI USUA, GOSE EDO LO-MEZUA

Aharrausi: Nahi gabe egiten den aho-zabaltzea, loguraren, gosearen edo gorputzeko ondoreen baten ezaugarri dena (Euskaltzaindiak *dixit*) / *Usua*: askotan gertatzen dena, errepikakorra (*frecuente, habitual; répétitif*)

Gure gorputzaren mugimendu gehienek badute interpretaziorik, fisikoa, *animikoa* edo psikologikoa. Kasu honetan, aharrausiak bi esanahi izan ditzake: gosea adieraztea edo logura nabarmentzea. Hirugarren bat ere egon daiteke, jakina: aspertura. Dena den, gauzak argi gera bitez: zu, irakurle maite hori, aharrausika hasi bazara lerro hauek irakurtzean, jan ezazu zerbait edo joan zaitez ohera, ezinezkoa baita inortxo ere aspertzea azalpen interesgarri, hezitzaile, aberats, sakon eta esanguratsu hauekin. Ezinezkoa, kontxo!

11. AITZAKIA BILA DABILENAK BETI AURKITZEN DU

Erraz idatz daiteke esaera honen gaineko azalpena, bai. Hala ere, bazkalosteko nagitasunak ez du buruko lanetan laguntzen, eta atsotitza ulertzeko ez dago arazorik (B2 edo, are, B1 izanez gero euskaraz), eta nor gara gu, EZTko antolatzaileok, pentsatzeko gure lehiakide maiteok inolako laguntza behar dutela esaeren zentzua antzemateko (besteak beste, jakinda azalpenon sortze-lanetan gizonezkoren batek ere parte hartzen duela, arriskua baitago "mansplaining" edo "manexplanation" arazoetan jausteko...). Hori guztia esanda, hobe azalpenik ez ematea. Bai, ezta?

12. AKATSIK GABEKO LAGUNA, AURKITU EZIN DUGUNA

Akats: huts, hutsune, gabezia

Amets polita da pentsatzea gizaki guztiak onak direla; are ederragoa da ziurtzat jotzea gure lagunak oro ganorazkoak direla... Baina ez gaitezen engaina: jende guztia ez da guztiz ona, ezta gure lagunak ere (estatistika kontra dago).

ABISUA: hemendik aurrera atal autobiografikoa dator, sentitzen dugu.

Nik ("azalpengile" batek), adibidez, ez dakit zenbat aldiz sartu dudana hanka lagunekin (erantzun txarren bat, keinu desegokiren bat...); beraz, ni behintzat oso kontziente naiz ez naizela "akatsik gabeko laguna"... Adiskideek barkatuko ahal didate!

13. ALDI JOANA EZ DA ITZULTZEN

Aldi: denbora, garai / *Joana:* joan dena

Gogoratzen duzue gaztetan (edo umetan) inoiz zoriontsuak izan zinetela? Lasai, garai hori ez da bueltatuko. Gogoan duzue inoiz zerbait irabazi zenuela (berdin dio ipuin-lehiaketa, hitz gezidunen lehiaketa edo Esaera Zaharren Txapelketa — hemendik aurrera, EZT—)? Lasai, oso gaitza da mirariak errepikatzea... Iragana iragan da*, eta ezin da atzera egin denboran**. Pena al da? Norberak nolako iragana izan duen.

* Sinesgaitza da, baina hortik dator berba.

** H.G. Wells-en "The Time Machine" (*Denboraren makina*, 1895) zientzia-fikziozko eleberri bat baino ez da, aizue...

14. ARRANGURA-AROAN, OILOBUSTIEK AGINLE XERKA

Arrangura: kezka, kexa, pena / *aro:* garai / *Oilobusti:* koldar / *Aginle:* agintari / *Xerka:* bila

Lagun txarra da beldurra, fidagaitza. Krisi-garaietan, jendeak konponbide errazak bilatu ohi ditu, pertsona ustez indartsuen bidez, izan Erroman K.a. 49. urtean (Julio Zesar tirano izendatzean), izan Sobietar Batasunean 1922an (Iosif Vissarionovitx Dzhugaxvili "Stalin" Alderdi Komunistaren idazkari nagusi aukeratzean), izan Alemanian 1933an (Hitler "kantziler" hautatzean), izan Sopelan 1999an (Aitor izeneko bat sartzean EZTaren antolakuntza-taldean)... Erabaki garrantzitsuak ondo meditatuta hartu behar dira, eta izuak ez du tarterik uzten meditaziorako.

15. ASKO DEZAKE ESKUAK, BAINO GEHIAGO BURUAK

Dezake: ahal du / *Baino:* baina

Gauza asko egin ahal ditugu eskuz zein eskuarekin (bakoitzak pentsa ditzala bere gustukoenak), ados; baina askoz gehiago egin daitezke buruz, buruaz zein buruarekin, buruan hainbat trebetasun ditugulako (gehienok, behintzat): irudimena (batzuek), fantasia, gogoia, ametsak, memoria (gero eta gutxiago), moralaren kontzeptua (gehienok-edo), sentimenduak (askok), damuak (batzuek), ilusioak, inspirazioa...

16. BADAKIZU ZER ESATERA ZOAZIN; ZER ADITUKO DUZUN, EZ.

Zoazin: zoazen / *Aditu:* entzun

Elkarrizketetan, bi alde (gutxienez) egoten dira; ziur aski (orduaren edo/eta alkoholaren arabera), zuk badakizu zer esango duzun, baina zaila da asmatzea

zer entzun beharko duzun besteengandik. Horregatik, hona hemen aholku pare bat, guztiz doan (kasu honetan, behingoagatik, ez egin kasu zerrenda honetako esaera bati: 35.ari, hain zuzen):

- Pentsatuz gero gaia bereziki zaila izango dela, aurreikusi zer esango duzun, baita zer erantzungo dizuten ere (eta, bide batez, horren kontrako estrategia), badaezpada ere.
- Pentsatuz gero zure kontra jarriko direla, eraman a) gozokiren bat b) txisteren bat, biak ala biak giro hotza epeltzeko asmoz.

(bai, aholku txarrak dira; zergatik uste duzue esan dugula "guztiz doan" direla?)

17. BAGINAKI, BAGINUKE; BAGINU, BAGINAKIKE

Baginaki: bageneki, jakingo bagenu / *Baginuke*: bagenuke, edukiko genuke / *Baginu*: bagenu, edukiko bagenu / *Baginakike*: bagenekike, jakingo genuke
Zerbait egiten jakingo bagenu, arrakasta eta bitartekoak lortuko genituzke jarduera horretan; arrakasta eta bitartekoak edukiko bagenitu, jakingo genuke horiek nola erabili... Bi printzipiook (bitartekoak —"dirua" ere esan diezaiekezue, hala nahi izanez gero— eta ezagutza) elkarrekin lotuta ibiltzen dira; ez baduzue sinesten, ikusi Neguriko familien kasua: gurasoek (prestakuntzarekin edo gabe, maiz arbasoengandik) ondasunak dituztenean, zein da beren lehen kezka? Seme-alabei formazio ona ematea (unibertsitaterik prestigiotsuenak, masterrak, hizkuntzak, harreman sozialak*); formazio bikain ** horren bidez/horri esker, neguritarren belaunaldi berriak gai izango dira baliabide gehiago (dirua, bai; baina ez solik) berenganatzeko.

* Inozok bakarrik uste dute harreman sozialak ez direla formazioaren atal (garrantzitsu)a

** Zehatzagoa da "selektio", baina hiztegiek ez dakarte...

18. BAIGORRIKO BAXERA URREZ, HARAT ETA LURREZ

Baxera: jateko eta janariak mahairatzeko erabiltzen den plater- eta ontzi-multzoa / *harat*: hara

Bada antzeko beste esaera bat: "Urrutiko intxaurrak hamalau, bertara joan eta lau". Zera esan nahi du: kanpotik, gauzek itxura ederra edukitzen dute, hara doanaren ametsak tarteko. Turismoa egin duen edonork arrazoia emango digu: konparatu zer agertzen den hotelen propagandan, eta benetan nolakoak izaten diren...

19. BEHIN HASI EZKERO, AKABATE DATOR

Akabate: akabatzea, amaitzea

Gauzen ordena logikoa hori da: hasi → lan egin (edo lan-itxurak egin) → amaitu. Behin hasita zerbaitetan, amaitzea da azken pausoa. Bizitza bera da adibiderik egokiena: jaio → bizi (edo bizi-itxurak egin) → zendu.

Salbuespenik ba ote dagoen? Bai, baten bat; haietako bat da taldeen portaera (inoiz lotsagarria) EZTn: izena eman → esaerak ~~ondo~~ ikasi → parte hartu. Are gehiago, esan liteke segida horren hausturan (1 → 2 → 3) datzala porrot gehienen sorburua... (ez badakizu zer esan nahi duen azken esaldiak, galdetu serio zeure buruari).

20. BESTEEN BEHARREAN DAGONA, BETI GAIZKI

Dagona: dagoena

Saia zaitetz neurri batean autonomia izaten ("autonomista" beste kontu bat da, lasai), ondo bizitzeko. Autorik ez baduzu, beti garraio publikoaren (edo beribildun lagun) mende ibiliko zara; dirurik ez baduzu, beti mesedeak eskatzen ibiliko zara; bikotekiderik ez baduzu, beti ligatu nahian ibili behar; osasun mental egokia izan ezean, psikologoarenean beti...

Alegia, zoriontsu(ago) izateko gure aholkua da (ahaztu, otoi, 35. esaera) autoa, dirua, bikotekidea eta buruko-osasuna edukitzea, dena batera; horrela, akabo arazoak!*

* Honelako aholku gehiago emanaz gero gizateriari, "autolaguntza-saiakera" gisa sailkatuko dituzte azalpenok.

21. BI ESKEINTZIA ERREZAO, BAT EMATIA BAINO

Eskeintzia: eskaintzea / *Errezao*: errazago / *Ematia*: ematea

Behar izanez gero, esaera honen inguruko azalpen luze bezain interesgarria emango dizuegu. Bidali eskaera hona: esaera.zaharrak@aek.eus. Azalpenarekin batera, adibide edo anekdota esanguratsuren bat ere joango zaizue. Hala, idatzi. (azalpena 2024koa da; 2025eko martxoaren hasieran, inork ere ez du idatzi... Horixe da egiten diguzuen kasua, alproja horiek!)

22. BIBOA USTE, ETA BABOA IZAN

Bibo: gaztelaniazko "vivo" (bizkor, azkar, argi) / *Babo*: ergela

Autopertzepzioa zer den! Batzuek uste dute badirela oso argiak, azkarrak, jakitunak (intelektualak, ia), sakonak eta adimen handikoak... baina, egiatan, tontoak dira, baboak.

Zuk, irakurle, pentsa dezakezu horixe bera gertatzen zaiela lerro hauen egileei. Baliteke, baina ez ote da zeure kasua ere? Ondo hausnartu horretaz...

23. BORTXAKO LAN, TXARRA

Bortxako: bortxazkoa, behartua, gogoz kontra

Nahi gabe, gogoz kontra, behartuta, norbaitek aginduta egiten diren lanak eskasak izaten dira. Hala, antzinako (eta gaur egungo) sistema ekonomiko esklabistak nahiko errendimendu baxua ematen zuen, esklaboek —batek daki zergatik— ez baitzuten lan egiten ganoraz. Horregatik pasatu omen zen, Europan, sistema feudalera, non nekazariak etekinen zati bat jasotzen zuten (erdia-edo).

Orain, irakurle adimentsua, gai zinateke esateko ea azalpen hauek guztiak prestatzeko lana (azken letraraino) bortxazkoa den?

24. DABILENAK ZEOZER EKARTZEN DU ETXERA

Zeozer: zer edo zer, zerbait

Gogoratzen duzue eskolako Historia irakasgai inoiz agertzen zen kontzeptu hau: "gizarte ehiztari-biltzailea"? Paleolitoko ekonomia nagusia zen (gaur egun ere badirau leku jakin batzuetan), eta oso oinarri sinplea zuen: bizitzeko, jateko zerbait ekarri behar zen etxera (edo leizera, berdin dio).

Horretaz ari zaigu esaera: etxean geldi dagoenak ez du ezer lortzen; baina, sofatik altxatuta, mugitzen denak, agian zerbait eskuratu eta ekarriko du etxera. Adibidez, 2025eko apirilaren 5ean etxean geratzen denak zer egingo du, denbora

alferrik gastatzea ez bada? Aitzitik, egun horretan Sopelara datorrenak sari handiak jadets* litzake, ederto pasatuko du, jende ezin atseginagoa ezagutuko du eta are gehiago maiteko ditu euskara, esaera zaharrak, euskal musika eta bertsolaritza. Dena den, badaezpada ere, ez irakurri orain 18. esaera.

* lortu (zertarako daude hiztegiak?)

25. DAGOENEAN PAR-PAR, EZ DAGOENEAN NEGAR

Par-par: barrearen onomatopeia, kar-kar (*ija, ja!*)

nahi duguna lortzen dugunean, pozik gaude (barre egiten dugu); nahi duguna lortzen ez dugunean, triste gaude (negar egiten dugu).

Ez zenuten uste gai ginenik azalpen laburrak emateko, e?*

* kar-kar-kar!

26. DAKIEN GUZTIA EZ DERRALA, AHALA ORO JAN EZ DEZALA

Derrala: erran (esan) dezala (*que lo diga*) / *Ahala oro*: ahal duen guztia

Jarrera batzuek ez dute fruitu onik ematen, ez dute ondorio onik ekartzen.

Adibidez, ez da ona dakizun guztia esatea (gogoratu gaztelaniako esaera: "En comunidad, no muestres tu habilidad"), hainbat arrazoirengatik: besteak molesta ditzakezu, gero zutaz abusa dezakete...

Halaber, ez da ona jan ahal duzun guztia jatea, batez ere osasun-zioengatik.

Hortaz, gaitasun handia izanda ere, ez da komeni beti % 100 ematea. Izan gaitezen apalak, eta hobeto biziko gara.

27. DEGUNAREKIN GOAZ, EZ GENUENEKOAZ

Degunarekin: dugunarekin, daukagunarekin

Daukagunarekin goaz aurrera, bizitzan barna. Orain duguna baliatu ahal dugu (dirua, ezagutza, esperientziak, gogoia, lagunak, ilusioa, ametsak, umorea, esperantza, zaletasunak, oroitzapenak, aisia...) gure hil arteko bidaian, besterik ez daukagulako. Horregatik, kontuan izan behar dugu zer dugun orain, eta ez da komeni nostalgian erortzea, behin izan genuen horrek ez baitigu ezertarako balio orain, esperientzia izan ezik.

Imajinatu, esaterako, talde bat aurkezten dela 2025eko EZTren 30. edizio honetara ezertxo ere ikasi gabe, hau esanda: "Bada, eginda zagok/n*: nahiko eta aritu gintu(n)an paperak gora eta behera 2002ko hartan!". Nora lihoazke horiek? Deskalabrura, artez!

* Bai, euren axolagabekeria nolabait konpentsatzearren, euskara-maila dotorea ipini diegu parte-hartzaile eskas horiei; espero dezagun apreziatzen jakitea

28. DIRU-SOINUA GORREK ERE ENTZUTEN

Itxura guztien arabera, diruak mugiarazten du mundua, eta edonor dago/gaude haren mende. Badakigu jendeak sariengatik (eta ez beste ezerengatik) ematen duela izena gure lehiaketan, ez euskaltzaletasunarengatik edo atsotitzak eta ahozko euskal kultura sustatzearren... Tira, hori gure samina da, zuek ez duzue zertan jakin; isil gaitezen, beraz.

29. EDADEK EZTAU PARKATUTEN

Edade: adina / *Eztau*: ez du / *Parkatuten*: barkatzen

Ez gara hemen hasiko adinak ekarri ohi dituen arazoak zerrendatzen (minak gorputz osoan, mugikortasuna mugatzea, burua galtzea, bakarrik geratzea lagunak/bikotekidea galduta, Herioren hatsa gero eta hurbilago sentitzea, arazo ekonomikoak sufritzea pentsio urriaren erruz, inkomunikazioa belaunaldi gazteekin, zentzumenak galtzea hastea —entzumenak, usaimena, ikusmena...—, lekuz kanpo geratzea gizarte gero eta modernoago honetan —ez soilik arrakala digitalaren eraginez, baina baita ere—, ezertarako balio ez duzula sentitzea (traba/zama besterik ez zarela sentitzea, beste hitz batzuetan), zeure burua ondo zaindu ezin izatea, gero eta gaixotasun gehiago pairatzea (eta, beraz, gero eta gastu handiagoa eragitea diru publikoan), gero eta zaurgarriago sentitzea iruzurren aurrean, “jaun/andrea” entzun behar izatea zerbait galdetzen dizutenean, gero eta gogo kontrolagaitzagoak sentitzea gozokiak jateko... labur esanda, arinenetik larrienera), baina egia da denok pasatuko garela hortik, ezinbestean (eta hortik pasatzen ez denak beste bide bat hartu du, seguru); beraz, sinetsiezazue: edadeak ez du barkatzen.

30. EGARRI EZ DEN ASTOARI ZEINEK EDANARAZI

Edanarazi: edatera behartu

Zaila da inor behartzea nahi ez duen zerbait egitera; are zailagoa, bestea burugogorra denean (eta astoek fama hori dute). Antzeko zerbait gertatzen da gure lehiaketan: nekez lortuko dute parte-hartzaileek gure epaile zintzo eta ondradu batek ontzat ematea erantzun txarren bat...

31. EGUZKIXAK NORA, ZAPIXAK HARA

Eguzkixa: eguzkia / *Zapixa*: zapia

Eraginkortasuna ez da gaur egungo asmakizuna, ikus daitekeen moduan. Arropa garbitutakoan (zapiak barne), lehortzen ipini behar da (esaera zaharrak sortu ziren garaian, antzina, ez zegoen lehorgailurik), eta, horretarako, tokirik beroena hautatu ohi da (normalean, eguzkiak ondoen jotzen duen gunea). Horrek esan nahi du, noski, denok ibiltzen garela abagunerik onenaren bila geure helburuak lortzeko, alferreko lanak alboratuta.

32. ELTZE HANDIARI, SU HAUNDIA

Eltze: lapiko, pertza

Den-denak ditu aurkia eta ifrentzua. Laponian biziko banintz, dirutza gastatuko nuke berogailua pagatzeko; Arabiar Emirerri Batuetan, aire girotuan; Japonian, etxeak garestiak omen dira lurrikaren kontra prestatuta daudelako; Madrilen, kapitalismoaren logika ekonomikoarengatik: eskari handia eta eskaintza murrizta (besteak beste); Mexiko Hirian ez omen dago kalera irteterik, gauez, bizkartzainik gabe; Kanadako iparraldean, hartzak dira traba (baita geu ere haientzat)... Alegia, denak du arazoren bat abantailekin batera... Horregatik, eltze handia erosten badugu (janaria prestatu behar dugulako jende askorentzat, ziur aski), sua ere tamaina berekoa izan beharko da (eta, beraz, garestiagoa); bestela, alferrik ibiliko gara.

33. ERORIZ ZAZPI ALDIZ IKASTEN DA ZALDIZ

Zaldiz ibiltzen ikasteko (eta bizitzako beste zenbait arlotan), beharrezkoa da hainbat aldiz erortzea (hau da, hasieran txarto egitea). Inork ikasi al du igeri egiten, txirringaz ibiltzen, jendaurrean mintzatzeko, ligatzen... lehenengo aldian? Ez, ezta?

34. ESANA HAIZEAK ERAMATEN DU; ESKRIBITUA HAN GELDITZEN DA, TXURIAN BELTZA

Eskribitua: idatzia / *txurian*: (gip.) zurian

“Hitzak eta lumak, eramaiten haizeak”, hala dio beste esaera batek. Eta egia da: gizakiok ez dugu beti geure hitza betetzen, batez ere ahoz aginduz gero; alta*, gure berbak paperera ekartzen ditugunean (paperera edo, gaur egun, formatu informatikoetara), nolabaiteko ofizialtasuna ematen diogu hitz-emateari, eta ia-ia kontratu bihurtu (notarioaren aurrean edo epaitegian eginez gero, ken daiteke “ia-ia”). Orduan, errazagoa omen da berba betetzea, ezta?

* hala ere (badaezpada ere diotsuegu)

35. ESKATU BARIK, EZ EMON KONTSEJURIK

Barik: gabe / *Kontseju*: aholku

Irakurle, zure hobe-beharrez, ez irakurri azalpen hau. Ez horregatik, majo/maja!

36. ESPOSAK ANDREA, EZ BEGITARTEA

Esposak: esposa ezak, ezazu / *Begitarte*: aurpegi

Egia da, bikotekidea bilatzen baduzu horretarako aplikazioaren batean (edo tabernan, berdin dio), gure intereseko pertsona topatzean, lehenik eta behin alderdi fisikoari erreparatzen diogula (kasu honetan, esaerak “begitarte” aipatu duenez, gu ez gara sartuko bestelakoetan, egon badauden arren). Bada, jarrera hori egokia izan daiteke hasiera batean (nonbaitera begiratu behar da, aizue), baina gero ez: gero, baldin eta harreman hori indartzen bada eta konpromiso handiko fase batera iristen bagara, ezin gara soilik oinarritu bestearen itxuran, ez: pertsona hartu behar dugu kontuan, bere fazeta guztiekin (nortasuna, zaletasunak, pazientzia, adimena, prestutasuna, etika, printzipioak, iritzi soziopolitikoak... itxura fisikoa ahaztu gabe, zertarako engainatu geure burua?). Hau da, inor ez da ezkontzen aurpegi soil batekin (baietz, bada: anatomiaren atal gehiago aipa litezke, baina hori aipatu dugu jada azalpenaren 3. lerroan), ezpada pertsona osoarekin. Beraz, elkar ikusten dugun hurrengoan, ez ipini arreta soilik ene begitarte interesgarrian (nahiz eta ulertuko nukeen); hori baino askoz gehiago nauzu.

37. FESTA ONA, BEZPERATIK

Esan ohi da (eta esaten bada, egia izango da) ezen bidaia batean gozamina hainbat alditan gertatzen dela: hala bidaia prestatzean, nola egitean. Oro har, esan daiteke hori bera agitzen dela bizitzako une on guztietan: ospakizunen bat gertu dugunean (urtebetetzea, bidaia, ezkontza*, lehen hitzordua mutil/neska/ez-bitar batekin, jaia, bertso-bazkaria, sagardotegirako irteera, antzerki-emanaldia, ume baten jaiotza...), jada une atseginak izaten ditugula berori antolatzen edo zein ondo pasatuko dugun aurreikusten. Adibidez, pertsona batzuk (gutxi, baina batzuk) hilabete lehenago ari dira EZTz pentsatzen, goizeko saioan zenbat puntu pilatuko duten eta finalean zelako arrakasta izango duten amesten (bueno, hemen “ameskerian” ere erabil daiteke).

* Rolaren arabera, noski: ez da gauza bera senargai/emaztegai izan edo gonbidatu (alegia, oparia egin behar duena)

38. GANIBET BER BATEK DEBAKA OGIA ETA ERIA

Ganibet: labana, aizto / *Debaka*: ebakitzen du / *Eri*: atzamar

Tresna berberak ondorio onak zein txarrak eragin ditzake. Azalpen hauexek hartuko ditugu eredutzat: batzuentzat argigarriak izan daitezke, baina entretenigarriak ere; baina baten batek hartzen baditu Delfoseko orakuluaren berbatzat, (edozein) jainko(sa)ren mezutzat edo AIZU! aldizkariaren horoskopotzat, argi izan ezazue horrek amaiera txarra izango duela...

39. GITXI IKASIA, BETI JAKINTSU

Gitxi: gutxi

Autopertzepzioari buruz ariko gara oraingoan. Pertsona batzuek ez dute ondo antzematen beren burua nolakoa den benetan (adibidez, lerro hauek idazten dituztenek benetan uste dute dibertigarriak direla; *enfin...*). Horixe gertatzen zaie gutxi ikasi duten batzuei: oso jakintsuak direlakoan daude, batek daki zergatik.

40. GOGOIA, MIHIAK SALATU

Gure gizarte honetan ohikoa da disimulatzea, arlo guztietan: umorea, sentimenduak, desioak, gogo-eza (edo gogo biziagia), beste pertsona batzuekiko antipatia... Alabaina, berbetan hasita, gure barruko informazio guztia kanpora isurtzen da, ezin ezkutatzeko moduan... Hizketan hasita*, ez dago zertan arraio disimulatu, eta argi geratzen da zer pentsatzen dugun, galbaherik** gabe. Azalpenok prestatzean, adibidez, beti zalantza geratzen zaigu ea, benetan, horren txarra den gure hezkuntza-sistema, non esaldi erraz batzuk esplikatuko behar zaizkien parte-hartzaileei (teorian (?) helduak izanda), gero, total, ezer ikas ez dezaten eta zeharo barregarri gera daitezten, alkoholaren kontsumoa aitzakia merketzat emanda, beren adimen eskasaren erruz. "Astoari konfiturak" dio esaera zahar batek; kasu honetan, "azalpenak ezertxo ere ulertzen ez dutenei" esan beharko genuke... Ez dugu horrelako esaerarik asmatuko, ze jende askok jakingo luke zein den atsotitz berria, beren burua bertan islatuta ikustean. Zertarako ezer gehiagorik esan? Azken batean, zuetako inork ez du hau guztia ententituko...

* Hemendik aurrera, azalpengileak nahi izan duena idatzi du, formei erreparatzeke. EZTko antolakuntza-taldeak barkamena eskatzen die irakurleei, inor minduta sentitzen bada. Egia da azalpena zentsura genezakeela, baina hobe kanpoko bat molestatzeko, gure arteko bat baino (ikus https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabildatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=50&entryId=48386&query=korporatibismo).

** Euskara sakonago ikasiko bazenu, bazenekike zer den, arlote horrek!

41. GUTXI ETA ONA, ESTIMATUAGO

Zerbait ona denean, eskertzen da kantitate txikian edukitzea. Adibidez, guk ez genuke nahi hozkailuan 10 kilo kabiara eta 10 botila xanpain edukitzea, azkenean nazkatuko ginatke-eta. Pentsa ezazue gure EZT hilean behin egingo bagenu...

42. HAMAR GIZON ONETATIK, BEDERATZI AMAGATIK.

Pertsona on gehienak (azken ikerketa serioen arabera, % 90) beren amari esker dira onak (aitari buruzko daturik ez dugu, tamalez). Orain arte behintzat, amaren lepo joan izan dira etxeko lan asko eta asko (banaketa horren ondorioak asko dira genero-berdintasunaren aldetik, baina ez ditugu hemen aletuko, hau ez

delako idazki serioa), eta hori, ziur aski, onerako da, jakina baita emakumezkoek hainbat bertute dauzkatela, gizonezkoek neurri txikiagoan dituztenak, eta horiek transmititzen dizkiete beren ondorengoei.

Seguru gaude zera ari zaretela pentsatzen, irakurleok: "Azalpen hauek idatzi dituztenek ez dute amarik, ala?". Galdera interesgarria da, benetan, baina ezin dugu informazio hori eman, gure konfidentziasun-klausula dela-eta.

43. HAMAR KILO GATZ JAN BEHAR DA, ELGAR EZAGUTZEKO

Elgar: elkar

Denbora luzea behar da bi pertsonak (bikote batek, alegia) ondo-ondo ezagutzeko elkar: horretarako, ezinbestekoa da zenbait urteko bizikidetzatza. Bide batez, galdera: zenbat hil/urte behar du bikote batek 10 kilo gatz jateko bien artean? (eta haietako batek hipertentsioa badu, zer?) Aitor dezagun gure ezjakintasuna gai horretaz, gatzaren oso zale izanik ere!

44. HIRU BELARRITAN IGARAN HITZ ISILA, OROTAN LASTERKA DABILA

Igaran: igaro, pasatu / *Orotan*: guztietan / *Lasterka*: korrika, arrapaladan / *Dabila*: dabil

Gaur egungo euskara arruntean esanda: "hiru belarritatik (hau da, hiru pertsona) pasatzen den hitz isila (ezkutukoa), korrika ibiltzen da belarri guztietatik"; alegia, eta are errazago, inor ez kexatzeko moduan: hiru pertsonari kontatzen badiezu sekretu bat, informazio hori jada ez da sekretu izango, azkenean mundu guztiak jakingo duelako. Hortaz, kontu diskretuak oso jende gutxiri esan; bestela, zabaltzeko arrisku bizia dago.

45. IHABALIAREN EZPATAK, PUNTA MOTZ, AHOA LANPUTS

Ihabali: beldurti / *Lanputs*: kamuts

Beldurtiaren ezpatak punta motza du, eta ahoa kamutsa. Alegia, beldurti batek, eskuan armak edukita ere, ez dio aurre egingo arriskuari, ez delako gai izango bere izuari aurre egiteko.

Imajinatu eszena ikaragarri hau: EZT egunean, epaile batek ez-zuzentzat eman du talde baten erantzuna, "ta" esan dutelako "eta" beharrean... Alta, talde horrek ez du onartu nahi bere erabateko porrota, eta protestaka hasi da, hasieran txilioka, gero epailea astintzen... Epaile horrek badaki legearen indar guztia duela bere baitan, eta bere dituela, halaber, azken hitza eta erabakia. Baina "Iso denok, epaile gisa zuei punturik ez ematea ebatzi dut, eta horrelaxe jasoko da dagokion dokumentuan!" adierazi ordez, eskuak dardarka, telefonoa hartu eta antolatzaile bati deitu dio, erdi negarrez: "Laguntza, snif, mesedez...".

46. IKUSI NAHI EZ DU(N)ANA, BETI AURREAN

Dunana, duana: duzuna, hika

Matematikoa da: zerbait ikusi nahi ez duzunean (neska-lagun edo mutil-lagun ohia, hirugarren solairuko auzokide astuna, beti dirua eskatzen dizun sasi-laguna, aspaldi gaixorik dagoelako pena handia ematen dizun senidea*, etengabe sexu-harremanak eskaintzen dizkizun neska/mutil ezin politagoa**,...), hortxe agertuko zaizu maiz (salbu eta etengabe sexu-harremanak eskaintzen dizkizun neska/mutil ezin politagoa, noski).

* baina gogoan izan 75. esaera...

** txantxa da: horrelakorik ez da sekula egoten

47. JAIKI ZEN NAGIA, ERRE ZUEN HIRIA

Jaiki: altxatu / *Nagi*: lanerako edo egin behar dituen gauzetarako gogorik izaten ez duena

Nagiak (alferrak) ez dira mugitzen ezertarako ere (lerro hauek idazten dabilzanek ezagutza sakona dute gai honetaz). Baina kontuz ibil zaitez alfer bat mugitzen hasiz gero: horrelakoetan, behin mugitzen hasita, edozer egiteko gai da!

48. JAINKOAK EZ BADU NAHI, SAINDUAK AHAL GUTI

Ahal: botere / *Saindu*: santu / *Guti*: gutxi

Bizitza honetan (eta, kristauen arabera, baita hurrengoan ere, benetan horrelakorik egonez gero), gutxi batzuek agintzen dute, eta besteok ez. Euskal Herrian, Europa katolikoan bezalaxe, aspaldiko ohitura komuna izan da eskaerak egitea santuei (lana topatzeko, senargai edo emaztegai (ona, "garbia", leiala, polita, aberatsa, argia (baina ez gehiegi), langilea, jatorra...) lortzeko, seme edo alaba alferrak (edo ez oso azkarrak) azterketa garrantzitsu bat gainditzeko, soldaduskatik libratzeko, Athletic kopako finalera pasatzeko (edo ez pasatzeko), haurdun geratzeko (edo ez geratzeko), haurdunaldia ondo joateko (edo ez), loteria tokatzeko, 3. solairuko auzokideari zerbait (ez) oso larria gertatzeko, senideren baten gaixotasuna arintzeko (edo alderantziz), alabaren edo semearen bizitza matrimoniala hobetzeko...), trukean zerbait eskainita (ikus 71. esaera).

Alabaina, santuek ez dute batere botererik Jainkoak ez badu nahi, kristauen ustez benetako botereduna, ahalguztiduna, Jainkoa bera baita, eta santuek hari eskatzea besterik ez dute izaten, gizakien ezdeusen eta dibinitate ahaltsuaren arteko zubi-lana eginda. Gaztelaniaz esaten den moduan, "Donde manda capitán/a (edo patrón/patrona), no manda marinero/a".

49. JOKARIA, BETI GALTZAILE

Jokaria: jokalaria, jokoan edo apustuetan ibiltzen dena (OHARRA: hitza ez da agertzen hiztegi gehienetan; hortaz, kontuz erabili, batez ere azterketetan; dena den, nork behar du "jokari" berba azterketa batean, e?)

Jokalariak, edozein joko-motatan, beti du galtzeko aukera. Azken batean, joko guzti-guztiak (etxeko edo euskaltegiko bingoak izan ezik) negozio dira, matematikoki diseinatuta daude etekinak emateko, eta antolatzaileek helburu bakarra izaten dute: dirua irabaztea; beraz, jokatzen dutenek zerbait galdu behar dute, ezinbestean. Adibide moduan, Nevada estatuan (AEB), makina txanpon-jaleek jokatutako diruaren % 75 gutxienez itzuli behar dute saritan (hots, ia % 25eko mozkina lortzen dute). Azken batean, adituek dioten moduan, zorte-jokoak dibertitzeko modua izan daitezke (betiere, neurrian erabiliz gero), baina sekula ez bizimodua.

50. KAFAA BERORIK, JARRIRIK ETA URRIRIK

Jarririk: jarrita, eserita / *Urririk*: gutxi

Kafea (*Coffea arabica* eta *Coffea robusta* dira espezierik kontsumituenak; badakit bergin dizula datu horrek, baina nolabait bete behar dira azalpenok...), bada, kafea ez da edozein edari, eta baditu bere ohiturak. Beraz, kafearekiko esperientziarik onenak bizi nahi badituzu, jarraitu hiru aholku hauei:

1.- Kafea bero edan behar da, salbu eta prestatua hartzen baduzu dendako hozkailutik.

2.- Kafea eserita edan behar da, salbu eta oso lanpetuta bazabiltza edo Italiako kafetegi batean bazaude, non trago batez irensten duten.

3.- Kafea kantitate txikietan edan behar da, salbu eta azterketa baterako ikasi behar baduzu edo bestelako egoera larri batean bazaude (adibidez, lanerako testu garrantzitsu bat prestatzen, hurrengo eguneko 07:00etarako).

Hau da, kafea edonola edan daiteke, baina soilik goiko instrukzioei jarraikiz lortuko duzu benetako kafe-esperientzia aberasgarria bizi izatea*

* Euskal Herriko Kafe-Ekoizle eta -Saltzaileen elkarteak (KESAK) babesturiko iragarkia

51. LAGUNAK, INFERNUAN ERE GAUZA ONA

Argia da, ezta? Lagunak edonon dira beharrezko: parrandan, zineman, administrazioan (izapidetzeekin —paperekin— laguntzeko), gestoretan (errenta-aitorpena ikuskatzeko, esaterako), dendetan (zer erosi aholkatzeko), norberaren lantokian (giro ona izateko)... lagunak beti dira onak, baita tokirik txarrean ere. Arrazoi dugu, lagun maiteok?

52. LAPIKO EZIN DANA, EZTALGI LITZATE

Dana: dena / *Eztalgi*: estalki, tapa

Denok ez dugu balio edozertarako; bueno, zehatzagoak izanda, inork ere ez du balio edozertarako. Hori, baina, ez da berez arazo: kontua da gutako bakoitza kontziente izatea zer egin dezakeen, eta horretan aritzea.

Esate baterako, hainbat lan egoten dira EZT prestatzeko (bere txikitasunean), eta antolakuntza-taldeko inor ez da gai den-denak bere gain hartzeko, denbora faltagatik eta denon dohainak ez direlako berdinak... Eta gainontzeko zereginetan oso trebea ez denari, zer geratzen zaio? Bada, azalpen hauek idaztea, adibidez.


Horregatik, izan ura, ene laguna... Ai, ez, hori beste pertsonaia bat da.

Horregatik, ezin bazara lapiko izan (handia, zabala, gauza goxoen gordailua), saia zaitetz gutxienez tapa izaten, lapikoari bere funtzioetan laguntzeko.

53. LIBURU ZERRATRAK EZ DU ÑORI ERATSUKITAN

Zerratra: zarratua, itxia / *Ñori*: inori / *Eratsukitan*: erakusten

Liburu itxiak ez dio inori ezer irakasten. Esate baterako:



Goiko adibideak ez dizue ezertxo ere argitu, ezta? Bada, hori...

54. MARIGORRINGO: BIHER TA ETZI EGUZKIE EINGO

Marigorringo: marigorri, intsektu-familia (*Coccinellidae*), gorriak edo horiak dira, eta orban beltz txikiak dituzte hegalen estalkietan / *Biher*: bihar / *Eingo*: egingo

Esaera honen gakoa hauxe da: "seinale". Bizitzak seinaleak ematen dizkigu tarteka, batzuk onak, bestetzuk erdipurdikoak, asko txarrak... (bueno, norberak egin dezala banaketa, bere aldarteren arabera). Esate baterako, eta ohiko adibidea jartzearren, une batean harreman sexualak izateko eskatzen badiozu bikotekideari eta ezetz esaten badizu "ezker eskuko hatz txikian" mina duelako (a, eskuina da bikotekidea), susma ezazu zerbait ez doala ondo (edo zuen

harremana edo ohekidearen traumatologoarekiko komunikazioa). Antzina, jendeak askoz hobeto identifikatzen zituen seinaleak (eta gutxiagotan izaten zuen mina esker eskuko hatz txikian, baina hori beste istorio bat da), eta atoa harrapatzen zuen esanahia; hala, marigorringoak ikusiz gero, bazekien eguraldi atsegina zettorrela. Gaur egun, *Eguraldia* saioaren zain egon behar dugu horrenbeste jakiteko (helduok), edo app bat daukate mugikorrean (gazteek) edo sekula ez dute jakiten zer-nolako giroa egingo duen (nerabeek).

Oh.: hori guztia, aldaketa klimatikoaren eta intsektizidaren gehiegizko erabileraren ondorioak kontuan hartu gabe (badaezpada ere)

55. MEDIKU TXARRAK ETA ARNO ONAK ASKO HILTZEN DITUZTE

Arno: ardo

Bide askok eta askotarikoek eraman gaitzakete heriotzara. Horietako bi aipatzen ditu esaera honek: osagile eskasak eta ardo ona. Biak dira hilgarriak, baina, bistan, da, arrazoi ezberdinengatik. Analiza ditzagun:

a) Sendagile txarra tokatuz gero parean, baliteke diagnostiko ez-zehatza egitea, eta iboprufeno soila agintzea (berez, hanturaren aurkako medikamentu antiinflamatorio ez-esteroidea*) apendizitis baten aurrean... Horrelakoetan, peritonitisa agertzen da egun pare baten barruan, eta... (ikus 43. esaera).

b) Ardo onak abantaila asko ditu (kolesterol-maila jaitsi, artritisa edo minbizia izateko arriskua gutxitu, bihotzeko gaitzak prebenitu, buruko osasuna hobetu, zahartze-prozesua atzeratu eta digestioari lagundu, adibidez), baina neurrian hartuz gero. Gehiegi(txo) hartuta, alkoholak deshidratatzen du, triglizeridoen maila handitzen du, ajea eta menpekotasuna sor ditzake, eta hainbat gaixotasun dakartza: bihotzekoak, obesitatea, diabetesa edo gibelego arazoak, zirrosia, esaterako. Ez dago jakiterik zenbat pertsona aldatzen diren dimentsioz** alkoholaren erruz, baina OMEK (Osasunaren Munduko Erakundeak) 3 bat milioi kalkulatzen ditu, urtean.

Zer da hobe, orduan, mediku txarra ala alkohola? Gure ustez, osagile txarra tokatuz gero ondoan, ez dago arazorik alkohola hartzeko; total...

* Badakigu berdin dizuela jakiteak zer den iboprufenoa, baina honelako azalpenek itxura jantziagoa ematen diete, gure ustez, azalpenoi.

** Dotore geratu zaigu, e?

56. MIHI LUZEAK, ESKUA LABUR

Asko hitz egiten duenak, normalean, gutxi ematen du. Hori horrela dela erakusteko eta ziurtasun osoa izan dezazuen, pentsatu dugu —eta hala egingo dugu, ez izan zalantzarik— izugarrizko azalpen osoa ematea esaera horren inguruan, zuen zalantza guztiak aienatu (desagertu) eta gure ondare kultural erraldoiaren zati txiki baina aldi berean garrantzitsua den atsotitz hori erabat argitzeko asmoz. Horrela, alderdi teorikoa ondo landu ostean eta zenbait adibide esanguratsuren bitartez —praktika eta teoria, teoria eta praktika, biak ala biak uztarturik ulertzen baitira ondoen gauzak—, egiatan iritsiko zarete errefrauaren ñabardura eta konnotazio oro ezagutzera, horrenbeste non beste edonori azaldu ahal izango diozuen laburki eta erraz, C2ko AEKko irakasle prestu eta prestatu baten gisan.

Prest?

57. MILA URTE IGAROTA, URA BERE BIDEAN

Igarota: pasatuta

Urak bere bideak ditu eginda aspaldi-aspalditik, eta gertatzen dena gertatzen dela, horiek ditu bere bideak. Alegia, gauza batzuk ez dira sekula aldatzen. Esaera hori (ustezko) Erdi Aroko abesti batean agertzen da, "Beotibarko kantua" izenekoan hain zuzen:

Mila urte igarota / ura bere bidean.

*Gipuzkoarrok sartu dira / Gazteluko etxean,
nafarrokin batu dira / Beotibarren pelean...*

Gudu (bataila) hura 1321. urtean agitu zen; baina, antza denez, ordurako ohikoa zen gipuzkoarrek (Gaztelaren alde) eta nafarrak (beren independentziaren alde) borrokan aritzea elkarren kontra. Beraz, lehen esaldi poetikoak esan nahi du egon badaudela denboraren iragateak ere ezin alda ditzakeen gauzak: gipuzkoarren eta nafarren arteko antzinako lehia odoltsua, esaterako.

58. MUNDU ERDIAK BESTE ERDIARI BARRE EGITEN DIO

Badira mila modu gizakiok sailkatzeko: euskalduna/erdalduna, aberatsa/pobrea, zuria/beltza, homosexuala/heterosexuala, kristaua/ateoa, puntu eta koma erabiltzen dutenak/baliabide horren eskasia tamalgarria dutenak, eskuinekoa/ezkerrekoa, hondartza zalea/mendizalea/sofa zalea, miopea/(inork-ez-daki-zertarako) ondo ikusten duena, txakur zalea/katu zalea, Atxaga zaleak/Andu Lertxundi zaleak, eta beste milaka (milioika) gehiago. Kasurik txarrenean, elkar hiltzen hasiko dira (puntu eta komaren zaleak, ez; beste guztiak, agian); onenean, barre egingo diote elkarri. Horrelakoak gara pertsonok.

Hori irakurrita, zure aurpegia imajinatzen ari gara, kar-kar-kar!!!

59. NAHI DUNAK GEHIAGO EGITEN DU, AHAL DUENAK BAINO

Dunak: duenak

Gaitasuna baino, maiz prestasuna da garrantzitsua. Mesede bat eskatzen badiezu bi pertsonari, nork lagunduko dizu gehien: ahal duenak ala nahi duenak? Argi eta garbi dago: nahi duenak laguntza handiagoa emango dizu, gogoz ariko da-eta. Besteak, gaitasuna izanda ere, ez du gauza handirik egingo, borondatea faltako baitzaio (baten batek damua-edo sentitu badu hau irakurtzean, ez da hori izan gure asmoa, baina pozten gara).

60. NEGARRA LIBRE DA

Seguru inoiz entzun duzuen "emozio-kudeaketa" kontzeptua. Ez dugu ezer esango horren kontra (horretarako, zerbait jakin beharko genuke, izenaz gain), baina kontu bat argi dago: gauza batzuk kontrola daitezke, eta beste batzuk ez. Negarra (barrea bezala, paradoxikoa bada ere) ezin da erraz bezatu (*domesticar*, *domestiquer*), eta, agertzen denean, atea ireki behar zaie, ezin baita gerarazi.

Horregatik, negar egiteko gogoia duzunean, egiozu negar eta kito. Salbuespen bakarra EZTn dugu: ez negar egin esaera bat ez duzuelako asmatu; horren orde, ikasi gehiago hurrengorako!

61. NON ZALDARRA, HAN ATZAMARRA

Zaldar: pikorta, garau, "grano" / *Atzamar*: hatz, eri

Nahikoa da arazotxo bat izatea, edo min txiki bat, edo ahulguneren bat, mundu guztiak horrixe erreparatzeko eta horrexetan tematzeko. Asmo txarrez egiten dute? Baliteke...

62. NORI, NOLA MINTZA

Mintza: mintzatu, hitz egin, berba egin

Testuinguruaren arabera jokatzeko da zentzuzkoena; hortaz, ondo pentsatu nola hitz egingo diozun aurrekoari. Kontuan hartu nor den, zer dakien, nolakoa den, zer entzun nahi duen, zer espero duen zuregandik... Izan ere, ez da gauza bera 5 urteko ume bati berba egitea, horren amari, edo horren aitaitari... Edozein hizlarik daki bere hizkera moldatu behar duela entzuleen ezaugarrietara: euskalkia/batua, abiadura, tonua, erregistroa (lagunartekoa, jaso, neutroa)... Mundu guztiari ezin zaio (ez da komeni) berdin mintzatu. Aittu'aldek/n?

63. NUN-NAHI DAGO ZERBAIT

Nun-nahi: non-nahi edo nonahi, edonon

Bada, horixe: edonon dago zer edo zer. Hots, edozein tokitan topatuko duzu zerbait, askotan interesgarria. Basamortuetan badaude gauzak, baita Ipar Poloan ere. Are gehiago, zure ariman ere egongo da zerbait, ondo bilatuz gero. Beraz, hutsune existentziala sumatzen baduzu zeure baitan, nonbait dago konponbidea (apika, zure barnean bertan, batek daki!).

64. OGIA LEHENAGO, ORA BAINO

Or: txakur

Lehentasunak oso inportanteak dira bizitzan (gero, "bigarrentasunak" datoz, A. Otegik dioen moduan). Eta, egia esanda, aukeratu behar bada janariaren (metaforikoki, "egia") eta luxuen artean (adibidez, gaur egun, etxeko abere edo maskotak), bada, argi dago denok egingo genukeela janariaren alde, maskotei zor zaien errespetu guztia ahazteke, noski. Baten batek erantzungo dit garai batean (eta oraindik ere, lekuren batean) orak edo txakurrak ezinbestekoak izaten zirela (direla) piztia batzuen ehizarako; egia da, bai, baina ehiza ere ez al da, batez ere gaur egun, luxuzko ariketa (konnotazio etiko-moraletan sartu gabe)?

65. OHEAK GAZTEA AZKARTZEN, ZAHARRA AHULTZEN

Azkartu: indartu, bizkortu, sendotu

Oheak, lo egiteko edo etzanda egoteko altzari horrek, ez du ondorio bera sortzen pertsona guztiengan. Batzuei (azkarrei, gazteei), laguntzen die indarra berreskuratzen; besteei, aldiz, energia xurgatzen die. Ziur aski, neurrian dago kontua (bizitzaren arlo orotan legez): abusatuz gero ia dena da txarra (esaera zaharrak izan ezik, noski, jakina eta prefosta).

66. OKIN BERRIAK, BAHIA ZURI

Bahi: bahe (hondo sareduna edo zuloduna duen lanabesa, aleak tamainaren arabera edo zatikiak bereizteko erabiltzen dena)

Normalean, zeregin berri batean sartzen garenean (edo harreman berri batean), dena oso ondo egiten saiatzen gara, inpresio ona sortzeko eta zeregin (edo harreman) horretan segitu ahal izateko; izan ere, zerbaitetan berria zarenean gauzak txarto egitea ez da sobera ulergarria, ezta? Gero, denborak aurrera egin ahala, baliteke "erlaxatzea" eta horren txukun ez aritzea... Baina hori beste

esaera bat izan liteke.

67. ON EGITEN GEZURRA, EZ DA MAKURRA

Makur: txar, gaizto, akats

Mota askotako gezurrak daude: besteak beste, on egin nahian botatakoak. Horrelakoak, antza, ez dira berez txarrak. Dena den, EZTk gutuna bidaliko du egunotan Vatikanora ("Fedearen Doktrinarako Dikasterioa" izeneko batzordera, hain zuzen), argi diezaguten ea esaerak egia dioen ikuspuntu kristautik (musulmanen eta judutarren kasuan, aitor dezagun, ez dakigu nora idatzi).

68. OSASUNA GALDU ARTE, EZ DA EZAGUN

Ikus dezagun gizaki baten ohiko ekipamendua jaiotzean: bina beso, hanka, belarri, begi, birika, giltzurrun, sudurzulo, ipurmasail... eta beste gauza asko bana: bihotza (den-denek ez), gibela ("Ezerekin estutzen ez denaren jokabidea, patxada" adierarekin ere, askok), burmuina (uff, batzuek soilik), genitalak (hainbatek, zertarako?), etab. Eta, printzipioz, hasieratik bertatik espero dugu horrek denak ondo funtzionatzea, harik eta norberak mundu honekikoak egin arte. Hori da teoria, baina praktikan matxura asko izaten ditugu, autoen moduan (kotxeetan, maiz, erabilera handiarengatik; gizakiongan, usu, justu kontrakoarengatik), eta orduan hasten gara kezkatzen gure egoera fisiko-mentalaz, ez lehenago. Lehenengo arazoak sortu bitartean, denok pozik, inkontzientzia ergelean murgilduta, gure gorputzaren bidezko eskakizunei sorgor...

69. PIXKE TA PIXKE, PUSKE

Pixke: pixka (Kopuru txiki, apur) / *Puske:* puska (zati)

Pixka askok, bilduta, puska handia egiten dute. Gogoan duzue Lola Floresen ideia bitxia? 1987an, Espainiako Ogasunak salaketa jarri zuen haren aurka, 47 milioi pezetako iruzurra egin zuelakoan (egungo 282.475,69 €). Garai hartan Espainiako Estatuak 40 bat milioi biztanle zituen, zera esan zuen *bailaora* famatuak: "Espainiar bakoitzak pezeta bat bakarria emango balit, ordain nezake zorra" (horregatik, batzuek diote hark asmatu zuela "crowdfunding" sistema).

70. POTIA POTE, NAHIZ PIPAR DA NAHIZ TOMATE

Pipar: piper / *Da:* eta

Lehengusina etorri zaizu bisitan Santoñatik (Kantabria, Espainia), eta, ohi bezala, zerbait ekarri dizu erregalu gisa: pote bat. Zuk, gutiziaz, papera kentzen hasi zara (paperean bilduta eman baitizu zure osabaren alaba jatorrak), ia utzikieriaz —ekintzari garrantzia kendu nahiko bazenio bezala, garunek "ummmm, antxoak!" dioten bitartean—. Orduan, zure begiek, sinetsi ezinean, deskubritzen dute potearen barruan ez dagoela "*Engraulis encrasicolus*" alerik, baizik eta "*Thunnus alalunga*" arrunta (hots, antxoia amestuak hegaluze ez-desiratua bihurtu dira errealitatean). Bada, agoanta zaitetz! Opariei ez diegu akatsik atera behar, eta aski da bezuzak jasotzea pozik egon gaitzen. Gaztelako erdaraz esaten duten moduan, "A caballo regalado, no le mires el diente" (batik bat, zaldiaren autoestimua ez mintzearren; batez ere, hortz bakarria badu).

71. SAINDU-MAINA, OTSO HIZANA

Saindu: santu / *Maina:* modua ("manera")

Batzuetan, jendea aldatu egiten da, eta zail egiten zaigu itxura berria onartzea. Kasu honetan, "otso" (gaiztoa, odol-gosea, basa*...) zen batek saindu moldea hartu du orain, eta hura ikusten duenak, lehendik ezagutzen baitzuen, ez du

sinesten benetako aldaketa denik... Imajinatu zuen ezagun bat ("lagun" gehiegizkoa litzateke), betidanik paso egin duena euskaraz eta euskal kulturaz, bat-batean agertzen dela herriko euskaltegian (bat baino gehiago egonez gero, ziur aski AEKrean) euskalduntze-eskoletan izena emateko prest, besapean "Erderismos" (Altube'tar Seber, 1930) eta "Gramática didáctica del euskera" (Ilari Zuburi, 2012) eta soinean Euskal Herrian Euskaraz-eko kamiseta daramatzala. Zer esango zenukete, behin ahoa ixtea nekez lortuta?

* Ikusi baduzue F. Rodríguez de la Fuenteren "El hombre y la Tierra", ahaztu parentesi barrukoa

72. SALDUE, GALDUE

Ezer saltzen baduzu, dagoeneko ez da zurea izango; hortaz, galdua izango duzu horren jabegoa.

Demagun The Walt Disney Company ("Disney konpainia", ingelesez ez dakitenentzat) enpresak gure EZTren eskubide guztiak erosi nahi dituela (irudi-eskubideak salbu, batzuk apur bat lotsagarriak direlako), nazioarteko saio bat egiteko Disney Channel-en ("Disney kanalean"; ez horregatik). Orduan, lehiaketa jada ez litzateke gurea izango, eta 1.000 milioi dolar horiek (imajinatzen hasita, ondo-ondo imajina dezagun, ezta?) neurri txiki batean baino ez lukete estaliko gure barruko hutsune nostalgikoa...

73. SALTSA HOBERENA GOSEA DA

Hoberena: onena

Saltsak garrantzi handia du sukaldaritzan, jakien zaporea, kolorea, testura, usaina eta itxura hobetzen ditu-eta. Azken batean, saltsa on batek erakargarriago bihurtzen du edozein plater (ez ahaztu antzina saltsek, eta espeziek oro har, disimulatu egiten zutela janariaren usteltze-prozesua, orduan ez baitzegoen hozkailurik). Edonola ere, gure desio gastronomikoa pizteko, bada saltsak baino eragile eraginkorragorik: gosea bera. Gose garenean, norik ez du esaten (ia) edozer jango lukeela?

74. SAN JUAN, NEKEZ ETORRI TA ARIN JUAN

Juan: joan (aditza, ez izena)

San Joan eguna (horrelaxe dakar Euskaltzaindiaren Hiztegiak) jaiegun garrantzitsua da Euskal Herrian eta kultura kristau guztietan, eta ekainaren 24an ospatzen da (agian, Egunean Behinen galdetu(ko) dizuete inoiz), nahiz eta bezperako gauak garrantzi handiagoa duen. Luze idatz liteke gau horren esanahiaz, antzinako sinesmenen iraupenaz, udako solstizioaz... Baina hemen esaera zaharren gaineko azalpenak irakurtzen ari zarete, ez saiakera antropologikorik (ai, zaudete adi!). Kasu honetan, argi dago zentzua: jaiegunak oso gutxi dira (lehen, are gutxiago) eta kosta egiten zaie iristea; baina, gero, atoan, berehala, aurki iragaten, pasatzen dira eta berriro itxaron behar dugu berriz etorri arte.

75. SAN MARKOS ASTEA, ARTOA EREITEKO ASTEA

San Marko Ebanjelariaren egunaren inguruan (apirilak 25), egokia bide da artoa ereitea, gure herri-jakinduriaren arabera. Alegia, garai aproposak egoten dira ekintza batzuk egiteko, eta, epe horren aurretik edo ostean, ez da komeni edo ez du merezi. Adibidez, EZT apirilaren 5ean ospatzen bada (larunbata), martxoaren 29tik apirilaren 4ra ikasi behar dira esaerak, ez lehenago (ahaztuko zaizkizuelako, batez ere gazteoi, memoria oso kaltetuta duzue-eta eskuko

telefonoen eta pantailen erruz), ezta geroago ere (behin txapelketa eginda). Hortaz, argi gera bekizue: gauza bakoitza bere garaian egin behar da.

76. SEKULAN BAINO, NOIZBAIT HOBE

Sekulan: inoiz ez / *Noizbait*: inoiz, momenturen batean

Hots, hobe berandu, inoiz ez baino. Zenbaitetan, zereginak geroko uzten ditugu (oso berba polita da "prokrastinazio" (latinez, *cras* hitzak "bihar" esan nahi du); Elhuyar Hiztegian agertzen den moduan, "eginbeharrak arrazoirik gabe atzeratzea"), baina den-dena ezin da etorkizunerako utzi, eta noiz edo noiz egin behar dira gauzak, batez ere presazkoak badira (oso gaixorik dagoen senideari bisita, adibidez, badaezpada ere*).

* Bale, berriro jarri gara tragiko...

77. SÍ TA NO TA POR AQUÍ, ASTOAK ERDERAZ DAKI

Sí: bai / *No*: ez / *Por aquí*: hemendik

Garai batean (ere) ohikoa zen euskaldunak frantsesez (Ipar Euskal Herrian) edo gaztelaniaz (Hego Euskal Herrian) egiten saiatzea, nahiz eta, kasurik gehienetan, ondo jakin ez. Horren arrazoia, besteak beste, egoera diglosiak eragindako konplexu-sorta izango zen, baita euskararen errekonozimendu ofizialik ez izatea ere gure ondoko bi estatuetan. Euskaldun erdaltzale horiei barre egiteko asmoz sortu zen esaera hau, Bidasoatik behera.

Gaur egun, euskaldun guztiok (4-5 urtetik aurrera) ongi ezagutu ohi dugu nork bere estatuko hizkuntza hegemonikoa, baina lehengo ataka linguistikoak bere horretan dirau: euskara bigarren mailako hizkuntza da, eta euskaldun askok — gazte ugari, bai, baina ez soilik haiek— nahiago izaten dute "*sí/oui*", "*no/non*" edo "*por aquí/par ici*" esan, agintarien hizkuntzan. Hau da, antza, ez gara gure arbasoak baino azkarragoak...

78. SUGEA HILAGATIK, SUGAKUMEAK BIZI

Hilagatik: hil arren, hilda ere / *Sugakume*: sugearen ume, sugekume

Arazo batzuk erraz desagerraraz ditzakegu, baina baliteke horien ondorioak zailagoak izatea konpontzen. Adibidez, Ukrainako gerra atoan, oraintxe bertan, amaituko balitz ere, zer egin Errusia-Ukraina arteko ezinikusiarekin, eta hango hiri eta herrien zaharberritzearekin, eta Errusiako ekonomiarekin, eta Donbas zein Donetsk eskualdeetako jendearekin eta haien eskubideekin, eta mendebalderantz jo duten milioika errefuxiatuekin, eta NATOren zabaltze-asmoekin, eta Ukrainiako talde faxistekin, eta Sobiet batasunaren itzala berpizteko planarekin, eta komunikabide batzuen kontrako zentsurarekin, eta kazetari espetxeratuekin eta abarrekin? (2022ko azalpena da, baina oraindik balio du; tristea, ezta?)

79. TIPIAN IKUSIA, BETIKOTZ IKASIA

Tipian: txikitan / *Betikotz*: betiko

Txikitan ikusten eta ikasten duguna betiko geratzen zaigu iltzatuta burmuinean. Guri, behintzat, hala gertatu zaigu.

80. TONTOAK ZER DAKI EGITEN? ONTSA EGINAREN DESEGITEN

Ontsa: ondo, ongi

Tontoek ez dakite ezer egiten. Bueno, ez dakite ezer ONDO egiten. Beraz, zertan dira onak tontoak? Bada, jada ondo eginda dagoena desegiten; beste ezertan ez. Ulertu duzu azalpen hau, ala esaera honen protagonistetako bat al zara*?

* Testu idatzietan ez omen da ironia ondo nabaritzen...

81. TXAKUR HAUNDIARI, OKELA; TXAKUR TXIKIARI, MAKILA

Haundia: handia

Aberatsei (metaforikoki "txakur handi") harrera ona egiten zaie, opari eta guzti; pobreei ("txakur txiki"), aitzitik, tratu txarrak besterik ez zaie ematen: destainak, irainak eta erdeinuak besterik ez. Horrela egiten duzue zeuek ere, ohar (ustez etiko) hauen irakurleok? Aztertu, miatu, arakatu ondo zeuen bihotzak, jakin dezazuen egiatan bide onean zabiltzatenetz ("zabiltzaten ala ez").

82. TXIKI GUZIK, POLITT

Guzik: guztiak

Bada, horixe: izaki/gauza/animalia/ideia/pertsona guztiak (garrantziaren arabera ordenatuta) politikak dira, txikiak izanda. Adibide batzuk ipintzearen, marigorringoak (6-8 mm) *Gioconda* koadroa (77 x 53 cm), munduko katakume guztiak (bereziki zuri-beltzak, batzuen ustetan), EZT lehiaketa edo Kylie Minogue kantaria (1,52 m). Txikitasunean dago edertasuna, beraz*.

* 1,70 metrotik beherako pertsonen % 88,23 bat dator esaldi horrekin, azken inkesta soziologikoen arabera.

83. UKALONDOARI MUN EIÑ GURARIK BIZI

Mun eiñ: musu egin, musukatu / *Gurarik*: nahian

Aitortu egia: inoiz saiatu zara zeure ukalondoa musukatzen? Erantzuna baiezkoa bada (% 94,32), honezkero jakingo duzu ezinezkoa dela. Bada, tontakeria da (gogorregia al da "ergelkeria"?) kontu ezinezkoak desiratzen bizitzea: izan ere, frustragarria da (tristea ez esatearren) eskuratu ezin den hori desiratzea. Honekin guztiarekin esan nahi dugu ezin dela amets egin, adibidez, Euskal Herriaren —6 edo 7 lurralde diren, beste batean ebatziko dugu— independentziarekin edo, are zailago, euskal literaturan pornografia, odola eta gordinkeria agertzearekin? Ez, inondik inora ere ez: amets egitea libre da, baina kontuz ibili, denok ez baitugu gaitasun berdina frustrazioari aurre egiteko.

84. ULERLE ONARI, BERBA GITXI

Ulerle: ulertzen duena / *Berba*: ele, hitz / *Gitxi*: gutxi

Erraz ulertzen duenari, gauzak labur azaldu. Aski da horrela; bai, ezta?

85. URHUNA LAUDA EZAK/N, HULANA HEURE EZAK/N

Urhun: urrun / *Lauda ezak/n*: lauda(tu) ezazu, alaba(tu) ezazu (baina hi pertsonarekin, "tuteoan") / *Hulan*: hurbil / *Heure ezak/n*: zeuregana(tu) ezazu Errespetatu beti (laudatu) urrun dauden pertsonak, baina saiatu zeureganatzen (zeure aldeko bihurtzen), liluratzen, konbentzitzen, "kamelatzen" inguruan dituzunak, hurbilak, ziur aski haien beharra izango baituzu egunen batean.

86. UR HUTSAK, BIZIA LUZATU

Denok dakigu edari alkoholodunak txarrak direla osasunerako, kaloria asko edukitzeaz gain, hainbat gaitz sor ditzakeelako: presio arterial handia, bihotzeko gaixotasunak, istripu zerebrobaskularrak, gibeledko eritasunak, digestio-arazoak eta hainbat minbizi-mota (bularrekoa, ahokoa, eztarrikoa, laringekoa, esofagokoa, gibeledkoa, kolonekoa eta ondestekoa); kafea eta tea ere ez dira askoz hobeak: kitzikagarriak dira eta, beraz, azaroak ekar diezazkigukete lo

egiteko edo digestio-aparatuan; edari azukredunak ere ez dira gomendagarriak, medikuek behin eta berriro esaten duten moduan... Zer geratzen zaigu edateko? Ura (H²O). Ura bakarrik edango bagenu, luzeago biziko ginateke... Aspertu ere bai, jakina.

87. UZTAILEAN, IGITAIA ESKUAN

Igitaia: uzta biltzeko edo belarra ebakitzeko lanabesa, komunistentzat mailuaren lagun mina

Behin, Picassok esan omen zuen: "Inspirazioa existitzen da, baina topatuko ahal zaitu lanean!". Alegia, tresnak momentu jakin batzuetan behar ditugu, ez beti (bide batez, Amets Arzallusek maiz esaten du bertsoak onenak autoan doala bururatzen zaizkiola). Horregatik, noiz izan behar dugu igitaia eskuan? Bada, uzta-garaian (a zer kasualitatea: uztaila = uzta-hila!).

88. XAPELIK HANDIENAK EZTU BURU HUTSIK BETETZEN

Xapel: txapel / *Eztu*: ez du

Arropak, kanpoko itxurak oro har, ezin ditu gure gabeziak estali. Munduko orrazkerarik konplikatuena erakuts dezakezu, inoizko zapatarik garestienak jantzi edo Europa osoko azazkalik luzeenak eduki (Ameriketan luzeagoak egongo dira, seguru), baina tontoa/tuntuna bazara, inguruko guztiak zure eskasiaz konturatuko dira zuk ahoa zabaldu bezain pronto (baldin eta haiek ere zu bezain tontoak/tuntunak ez badira, jakina; kasu horretan, arazorik ez).

89. XERRIARI EMANA EZ DA GALDUA

Xerri: txerri, urde

OHARRA: azalpen honek baditu beganoen sentikortasuna zauri dezaketen esaldiak.

Txerriak oso esker oneko abereak dira: (ia) edozer ematearen truke, gero beren barne-produktu gozoak eskaintzen dizkigute (odolosteak, urdaiazpikoa, xingarra, txorizoak, solomoa, saiheskiak, tripakiak, giharra...). Inbertsio ona dira gizaki *espezistontzat*, nahiz eta gero amaiera gaizto batez ordaintzen diegun.

90. XORIA EZAGUN DA LUMATIK

Xori: txori / *Ezagun da*: ezagutzen da

XXI. mendeko gizakion ideia finkoa da dena sailkatzea, ohitura horren susturriak zaharragoak badira ere (Lineo zientzialari suediarra (1707-1778) edo Darwin ingelesa (1809-1882) esaterako, inor aipatzearen). Norbait/inor klasifikatzeko orduan, parametro batzuk errazagoak dira: itxura, adibidez. Hala, loreak oso argigarriak dira landareetan, begien kolorea gizakiengan eta —horraxe ailegatu gura genuen hasieratik, nahiz eta inor ohartu ez— lumen kolorea txoriengan. Esate baterako, "zozo" bilatuz gero Euskal Wikipedian, zera agertzen da 4. paragrafoan: "Arra **beltza** da, moko eta begiko eraztun horiarekin, eta emea **arrea**, kontraste gutxiagoko moko eta begiko eraztunarekin". Hara zein garrantzitsua den lumen kolorea hegaztiak deskribatzeko orduan!

91. ZAKUA, SOBERA BETHEZ, LEHERTZEN DA

Sobera: gehiegi, larregi / *Bethez*: betez

Zer pasatuko da motxila txikia betetzen eta betetzen hasten bagara, neurririk gabe? Bada, azkenean, apurtu egingo dela (azalpen fisikoa).

Zer pasatuko da gauza gehiegi lortu nahi baditugu (dirua, fama, boterea, edertasuna, sexua, bildumaren bat...) neurririk gabe? Bada, bizitza alferrik

xahutuko dugula ameskeria horien atzetik, zorientasuna eskuratzeke eta gure ingurukoak kontuan hartzeke (azalpen etiko-morala).

92. ZENBAT BURU, HAINBAT ABURU

Aburu: iritzi

- a) Sortzaileen iritziak, mundialak eta ezin hobeak dira azalpenok.
- b) Parte-hartzaile batzuen ustez, lagungarriak dira (neurri batean, esajeratu gabe).
- c) Beste parte-hartzaile batzuen aburuz, nahasgarriak dira, batez ere idazle frustratuen kutsuarengatik (edo "kiratsarengatik", bertsioaren arabera).
- d) Sortzaileen lagunen baten irudiko, OSO dibertigarriak dira, "irakasgarriak" izatez gain (hori bai, 27.era iristea lortu zu(t)en, adiskidetasunak horraino soilik behartzen zuelakoan).
- e) Kasualitatez inprimagailu ondoan topatu zituen AEKko irakasle horrek zera pentsatu zuen: "Zer ostia da hau? Zertan (mal)gastatzen dugu dirua AEKn?".
- f) "Antzinako Euskal prosaren adibide onak eta txarrak" (Elkar, 2006) bilduman agertuko da azalpen hauetako bat edo beste, baina ez dakigu zein ataletan ("onak" edo "txarrak"), editorea ez delako jaio oraindik.
- g) 3707an, 2025eko 83. esaeraren azalpena sartuko dute "Textibus antiquis Vasconicis qui sunt incomprehensibiles (et gratias ago bonitatem)" izeneko bilduman, itzulpenik gabe, erlikia moduan, polita delakoan.

93. ZILARDUNA, URRE GOSE; URREDUNA, SEKULAN EZIN ASE

Zilarduna: zilarra duena / *Urreduna*: urrea duena / *Ase*: bete

Daukagun baino gehiago nahi izaten dugu, eta, zenbat eta gehiago eduki, orduan eta gehiago nahi izaten dugu. Eta, okerre dena, guztia dugunean ere ez gara konforme garatuko. Adibide *tonto* bat jartzearren, ikusi 2025eko Ameriketako Estatu Batuak: lehen potentzia mundiala izan arren (目前 "momentuz"), Groenlandia, Kanada, Panamako kanala, Ukrainako "lur arraroak", NATOko kideen BPGaren % 5 (beren) armetan gastatzea eta beste mila kontu nahi dituzte, eskatzea libre delakoan.

94. ZIRKO GUZIETAN, PAILAZOAK

Zirkuan denarik egoten da: trapezistak, malabaristak, akrobatikak, ilusionistak, *eskapistak*, fakirrak eta, nola ez, baita pailazoak ere (bai, azalpen honek 20. Korrikaren kanta dirudi). Dena den, esaera hau esaten badizute, ez pentsa laudorioak egiten ari zaizkizunik...

95. ZORITXARRAK, IRAKASTEN; ZORIONAK, ERGELTZEN

Ergeltzen: ergel bihurtzen

Akats eta arazoetatik ikasten da; egoera onetatik, aitzitik, ez da ikasten, eta, okerragoa dena, ohitzen gara... Hortik ondoriozta daiteke hobeak direla une txarrak? Ez, neska/gizona! (baina txarrak aprobetxatu behar dira zerbait ikasteko).

96. ZORRA, LORRA

Lor: karga, beharra, atsekabea

Antzinako denboretan, animaliek ere hitz egiten zekitenean... Bueno, horren atzera joan gabe, ez aspaldian, zorrak edukitzea lotsatzeko modukoa zen. Horregatik, jendea saiatzen zen ahalik eta arinena ordaintzen, laido hori ez luzatzearen. Gaur egun, oster, ohituta gaudenez zorretan egoten, ez diogu

horrenbesteko garrantzirik ematen. Horrela dira gauzak, eta horrelaxe kontatzen ditugu.

97. ZOZO ASEAK, GINGAK HIGUIN

Zozo: urretxindorraren familiako txoria, luma beltzak eta moko laranja (arrak) edo lumadi arrea eta moko horixka (emeak) dituena (*Turdus merula*)/ *Ase*: bete / *Ginga*: gereziaren antzeko fruta biribil gorria; maiz, tarten gainean ipintzen dituzte / *Higuin*: nazka kapritxoek mugiarazten gaituzte, edo momentuko apetek. Horregatik, egarri bagara edan egiten dugu (bueno, egarri egon gabe ere edan dezakegu Euskal Herrian), eta goseak gaudenean jaten dugu (bueno, goserik gabe ere jan dezakegu Euskal Herrian), eta bestelako gogoak era izaten ditugu tarteka (nork berea(k) imajina dezala/ditzala). Kontua da, sarri, beharrizan horiek betetzen ditugunean, eta beraz ase gaudenean, joan egiten zaizkigula denbora labur batez gogo horiek, eta ahaztu egiten zaizkigula. Orduan, muzin egiten diogu lehen indar handiz desiratu dugun horri, gogo berpizten zaigun arte. Adibidez, 2025eko apirilaren 5ean, nork izango du EZT batera joateko asmorik? Inork ere ez...

98. ZOZOAREN ABANTAILA DA BERE BURUAZ KONTENT IZAITEA

Zozo: txori-mota (*Turdus merula*); inozo, lelo, ergel / *Kontent*: pozik / *Izaitea*: izatea, egotea

Tontoa bazara, ziur aski ez zara konturatuko zure tonto-izaeraz, eta pozik egongo zara. Ez dago txarto, ezta? (Azalpen hau ez baduzu ulertu, ez galdetu inori: hobeto biziko zara).

99. ZUME HAUEKIN SASKI HAU BAINO EZIN DA EGIN

Zume: saskiak egiteko erabiltzen diren adar malguak
Zerbait egiteko, osagai egokiak eduki behar dira eskura. Adibidez, bi arrautza, olio eta gatza besterik ez badut, tortilla/arrautzopil/moleta hutsa egin beharko dut, nahitaez. Antzeko zerbait gertatzen da gure lehiaketarekin: zuen moduko parte-hartzaileekin, sekula ez dugu lortuko Euskaltzaindiak beso zabalik babestea gure ekitaldia (are gutxiago UNESCOK "gizateriaren ondare immaterial" izendatzea*...).

* Bale, berriro jarri gara oniriko...

100. ZUZENTASUNA NAHI DUENA BERE ETXETIK HASI BEDI

Bedi: dadila

Eredugarriak izan nahi badugu (guk ez, baina seguru gaude zuetako baten batek nahi duela), mundua justu(ago)a izatea gura badugu, dena ondo eta behar bezala joatea gogoko izanez gero, denok egin behar dugu zerbait. Eta ekarpen hori egiteko modurik logikoena geure buruarekin hastea da. Imajinatu greba egin dugula enpresan lan-baldintza duinak lortzeko, baina aldi berean etxean neska immigrante bat daukagula, ez kontraturik ezta paperik gabe ere, gure ama adinekoa zaintzeko... Ez da onargarria, ezta?